

## Jose txo eta Amare

**Larunbatero legez**, aitarekin Beundera igotzeko irrikitan dago Jose txo. Aita Tomas sukaldean gosaria prestatzen ari dela, Jose txok amaren ohera egiten du salto. Betidanik gustatu izan zaio esnatu aurreko minututxoak gurasoen ohean aprobetxatzea.

- Etorri, seme. Hemen dezu esnea. - jakinarazten dio aitak pasabidetik.

Erdi lo dagoen amak ukondoarekin astintzen du semearen gorputztxoa, aitari kasu egin diezaion. Konturatu orduko mutikoa zutik jartzen da: ondo baino hobeto daki egun polita duela aurretik.

Udazkeneko zapatuetan, aita eta semeak gauza bera egiten dute beti: ama etxean deskantsatzen utzi eta mendira abiatzen da bikotea. Land Rover gorri zaharkitu batean igo ohi dira mendira, atzeko aldean ehiza-zakurrentzat kutxa bat daramatela.

Tomasek oilagorrek ehizatzea du maite, baita azeriei tranpak jartzea ere. Aita Tomasen eskopetari errespetu handia dio Jose txok; soberan daki oso arriskutsua izan daitekeela. Berak badu ere beste tresna dotore bat, animali txikiei harritxoak botatzeko balio duena: egurrezko tiragoma bat. Trebetasun handiz erabiltzen daki gainera.

Latz ehiza-txakurra atzeko kutxatik askatzen du Jose txok. Aitak ehizatzen dituen hegaztiak ahoan ekartzeko balio die animaliak. Horretaz gain, Jose txori konpainia handia egiten dio batzuetan: Aita beste ehiztariekin elkartu eta jo ta ke berrikeretan hasten direnean, adibidez. Jose txori ez zaizkio bilera horiek gustatzen, ehiztariak beti baitabiltza ea nork ehizatu dituen oilagor gehien.

Jose txo tiragomarekin arbol baten enborrean praktikatzen dago, Latz derrepentean zaunka hasten zaionean. Aita Tomas urruti xamar aurkitzen da orain zer edo zer entzun ahal izateko.

Jose txo zakurra dagoen lekuraino hurbildu eta zera ikusten du: Azerientzako jarrita duten tranpa batean neskatala gazte baten oina dago harrapatuta. Mutikoa ikustean urduri jartzen da neska, beldur da zerbait egingo ote dion. Ez da fio.

Jose txok egundoko sustoa hartzen du sastraka artean neskatala basatia aurkitzen duenean. Honek daramatzan piurak bere atentzioa deitzen dute: belaunak urratuta, arropa zikin xamarak, buruan egundoko tximak...

Jose txok ahalik eta azkarren askatzen du tranpa neskaren hankatik. Zortea izan du honek: zapatilaren punta harrapatu dio soilik. Zutik jartzen da orduan derrepentean.

- Tranpak jarri, animaliak ehizatu, arbolak moztu...mina besterik ez diguzue egiten! - oihukatu eta pultza egiten dio Jose txori.
- Baina...guk ez ditugu arbolak moztzen. Horiek beste batzuk dira. - erantzuten dio lurretik.
- Berdin zait. Guztiak zarete berdinak! - ozen esan eta alde egiten du neskak korrikan.

Jose txo pentsakor geratzen da momentu luze batez: nor da neska hori? Zer egiten du mendian bakarrik aitarekin ehizatzen ez badago? Izan ere, Jose txok ez du hori ez den beste ezer ezagutzen...

**Hurrengo larunbatean** gauza bera egiten dute aita eta semeak: Beundera abiatzen dira Latzekin batera. Jose txo tiragomarekin jolasten ari dela, urrutira aitak oilagor bat antzematen du belar artean. Eskuarekin keinu bat egiten dio semeari gerturatu dadin. Badakite hitz eginez gero, oilagorrek ihes egingo diela.

Jose txok tiragoma haitz baten gainean utzi eta aitarengana gerturatzen da. Latz zakurra geldi-geldi dago oilagorri so. Aita Tomas, ordea, eskopetarekin tiro egiteko prest. Zoritxarrez, aitak asmatu ez eta hegaztiak alde egiten du.

Jose txo tiragoma berreskuratzerantz bueltzen denean, jada ez dago bertan. Jostailuaren arrastorik ez. Alde batera eta bestera begiratzen du mutilak, baina ez du inon aurkitzen. Halako batean, harri koxkor batek ematen dio kopetan.

- Auuu! - oihukatzen du eskua kokotera eramaten duen bitartean.

Gorputza biratu eta hantxe ikusten du Amane, pasa den larunbateko neskatua. Zuhaitz batetik zintzilik dago orain. Barreak egiten dio ihes honi, tiragoma eskuan duela.

- Mina egin didazu! Emaidazu tiragoma! - egiten dio garrasi Jose txok, erdi haserre erdi beldurturik.

Amanek barrez lehertzen jarraitzen du.

- Tiragomarik gabe ez al dakizu zure burua defenditzen? - galdegiten dio mesfidati.

- Emateko esan dizut! - Jose txo urditzen hasia da.

Amane zuhaitzetik jaisten da baina Jose txo ez da tiragoma bere eskutik kentzera ausartzen. Neska hura ez da eskolan dituenak bezalakoxea...Berari falta zaion ausardia ere badu.

- Zapaltzen ari zaren lur hau gure etxea da eta hemen ez dago honen beharrik. Eskolan ez al dizute errespetua zer den erakusten?

- Noski baietz...Baita gauza gehiago ere.

- Ba ez du ematen.

Isilune motz baten ostean, Jose txo ahoa irekitzera ausartzen da berriro.

- Zuri eskolara ez joateak ere kalte egiten dizula uste dut. Gurasoek ez al dizute esaten?

- Aiton-amonekin bizi naiz, baserrian. Eta egun batean nirea izango da.

- Baina...zertarako nahi duzu zuk baserri bat?

- Herrian horrenbeste atsegin duzuen gazta egiten jarraitu nahiko nuke. Baita uda garaian azokara tomateak eramaten ere.

Jose txo harrituta dago Amaneren izateko moduarekin. Argi geratu zaio ezberdina dela.

- Baina horretarako denok errespetatu behar dituzue inguruak...Hemen goran ere badagoelako bizirik.

Halako batean, aita Tomas eta Latz zakurra datozela ohartzen da bikotea. Amanek ziztu-bizian tiragoma Jose txoren eskuan jarri eta korrikan alde egitea erabakitzen du basoan barrena. Aitak semea ikustean txistu egiten dio, autorantz gerturatu dadin. Berari kasu egin baino lehen, Amaneri egiten dio garrasi Jose txok:

- Eeeeeeeh!

Urrutian Amanek atzera begiratzen du.

- Ikusiko al dugu berriz elkar? - Jose txori jakinmina piztu zaio. Atsegin du Amane.

Amanek, aldiz, erantzun ez eta martxa hartzen du berriro. Jose txo pentsakor geratzen da.

**Hurrengo larunbata.** Aita Tomas gosaria prestatzen ari dela, Jose txo sukaldeko atean agertzen zaio.

- Ze seme? Prest? - dio aitak irribarre zabalarekin aurpegian.

Jose txo pentsakor geratzen da minutu pare batez. Gerora, erantzuten du:

- Aita, eman dezagun paseo bat gaur. Baina esku hutsik, mesedez.

Aita Tomas harrituta dago semeak esan nahi dionarekin: mendira joatekotan errespetuz egingo dutela, eskopeta eta tiragoma etxean utziz. Sorbaldak igitzen ditu aitak txundituta.

- Zatoz zu ere, ama! - Jose txo amaren ohera gerturatzen da pozaren pozez.

Amane baserriko leihotik begira dagoela, derrepentean Jose txo, aita Tomas, ama eta Latz zakurra ikusten ditu urrutira. Baina ez dira Beundera ehizatzaera igo, paseatzera baizik. Barre txiki batek egiten dio ihes Amaneri: Jose txotaz harro dago. Orain berak ere atsegin du mutikoa. Gero, buelta erdia eman eta atzean duen amonari galdegiten dio:

- Amama, eta eskolara joaten hasten banaiz?

Amona eta ondoan dagoen aitonak elkar begiratzen dute. Irribarre egin eta buruarekin baiesten dute biak batera. Badirudi proposamen horren zain zeudela...

Amanek, orduan, lehioa parez-pare ireki eta ozen egiten du txistu. Jose txok atzerantz begiratu eta hantxe ikusten du neskatoa, urrutiko baserri batetik beso biekin agurtzen. Ustekabean harrapatu dionez, lotsati xamar bueltatzen dio agurra honek: masailak gorritu zaizkio eta guzti, sorpresatxoa gustatu zaion seinale...

*Txikiak asko dute elkar irakasteko,*

*batak besteari dioenean*

*baserria duela ezinbesteko.*

*Alderantziz ere ematen da,*

*Beundeko neskato basatiak,*

*jakinmina baitauka orain eskolara joateko.*

*AMAIA*